

# Germán Rodríguez. 1978ko Sanferminen memoriaren historia (mnemohistoria)



Egilea: Iñigo Urzain Andueza.

Gradua: Historiako gradua.

Ikasturtea: 2016/2017.

Tutorearen: Javier Ugarte Tellería.

Graduko jakintza-arloa/saila: Historia garaikidea

## AURKIBIDEA

0.	SARRERA.....	4
1.	HISTORIA.....	4
	<b>1.1. Testuingurua</b> .....	4
	<b>1.2. Gertakariak</b> .....	6
	<b>1.3. Gertakarien argipena</b> .....	7
2.	MNEMOHISTORIA:    1978KO    SANFERMINEN    MEMORIAREN ERAIKUNTZA.....	11
	<b>2.1. 1978    eta    2004    arteko    memoriaren    nondik     norakoak</b> .....	11
	2.1.1. Germánen ingurukoak.....	11
	2.1.2. Jaiaren muina: peñak.....	13
	2.1.2.1. Peñen jarrera aldaketa.....	13
	2.1.2.2. Hurrengo ospakizunen hastapenak.....	13
	2.1.2.3. Denbora luzeko konpromisoa.....	14
	2.1.2.4. Ikerketa batzordea eta prozesu judiziala.....	15
	2.1.3. Presoen inguruko mugimendua.....	17
	2.1.4. Memoriaren garapena urte hauetan.....	17
	<b>2.2. Hilarria</b> .....	19
	<b>2.3. Sanfermines 78: gogoan!</b> .....	21
	2.3.1. Herri ekimenaren sorrera eta nondik norakoak.....	21
	2.3.2. <i>Oroitarría, piedra de toque</i> dokumentala.....	23
	2.3.3. Unitate didaktikoa.....	23
	2.3.4. Argentinaren Kereila.....	24
	2.3.5. Aldaketaren gobernuak.....	24
3.	ONDORIOAK.....	25
4.	ITURRIAK.....	27

## SUMMARY:

In this essay it will be described the incident that took place in the festival of Sanfermines in Pamplona and the memory that it has endured until these days. They were fearful days that caused the death of Germán Rodríguez and many other people were injured. It provoked fear among the citizens.

So as to explain it, the context and the antecedents will be tackled. Apart from that, everything that happened those days will be described. As well as that, it will be tried to interpret the source of such situation, in order to set a general view of the different perspectives that could be considered to analyze it and to discover every unknown element that could be behind it. Hence, it will be demonstrated the function it accomplished in the Transition of Navarra and the importance it had in its future.

After having addressed all of it, the explanation of the mnemohistory will be expounded. This will be the most significant part of the essay, due to its size and content. The main point will be the development of the memory that has been build up during the decades and year by year. There will also be analyzed the causes of the different tendencies and their consequences. So as to carry it out, the turning points and the directions that were taken due to it will be assessed. In the same way, in the following pages diverse transversal axis will be developed. Two of those will be related to what happened in the courts and the attitude with the governmental institutions. It will also be set the different steps made in the fields of culture and education, and the established relation with many movements. Apart from that, the documentaries that have been made around this will be mentioned.

To conclude, there will be presented all the steps that this memory has accomplished since then until these days. What has reached and how it has endured will be mentioned. Finally, the conclusion of this essay will be set through a personal reflection.

## 0. SARRERA

Honako lan hau mnemohistoriaren baitan kokatzen da. Area hau Maurice Halbwachsen lanetatik sortutako historiaren ezagutza arlo bat da. Bere obren artean *Memoria kolektiboa* nabarmentzen da, zendu eta bost urteetara argitaratu zena. Bertan izenburuaren izen bereko kontzeptua landu zuen, gerora eragin azpimarragarria izan duena alor anitzetan. Ondoren, Pierre Nora adar bat sortu zuen memoria eta nazioaren historia nahastuz. Jarraitzaile asko dituen arren, ez da oraingoan jarraituko den bidea. Alor honetako autore baliogarrienetakoak Jan Assmann, Peter Novick edo Henry Rousso dira. Esparru honetan 1978ko Sanferminen memoriaren historia bat jorratuko da. Aipagarriak dira *Historia, Antropología y Fuentes Orales* aldizkaria, estatu mailako historiografian erreferente nabaria dena eta baita *Entreverse: teoría y metodología práctica de las fuentes orales* lana ere.

## 1. HISTORIA

### 1.1. Testuingurua

Francoren heriotzarekin Trantsizio prozesua abiatu zen 1975ean. Carlos Arias Navarro izan zen gobernuburu 1976ko uztailera arte, Adolfo Suárezek ordeztu arte. Azken honekin 1976ko Erreforma Politikorako Legearen bidez, 1977ko ekaineko hauteskundeetan hautaturiko Gorteen hurrengo urteko abenduan bukatu zen prozesu konstituziogile bati ekin zioten (Molinero eta Ysàs, 2015: 192). Artean, 1978an Nafarroan Ignacio Llano zen gobernadore zibila eta oraindik indarrean zeuden diktadurako instituzioak eta 1974ko martxoan aukeratutako Diputazio Foraleko kideak (Caspistegui eta Garde, 1999: 92-94).

Aitzitik, lurralde honetan Francoren azken urteetatik botere ofizial hauen aurkako oposizioa indartsua zen. Garrantzi handikoa zen bizitako industrializazioaren ondoko langile mugimendua, LKI, EMK eta batez ere ORT eragile nagusi zituena. Azkeneko hau zen militante kopuru, nahiz borroka anitzetan zuen hauspoarengatik garrantzitsuena. Gaitasun horren erakusle dira 1974ko greba arrakastatsuan jokaturako papera eta 1977ko hauteskundeetarako edozein alderdik Nafarroan egindako mitin jendetsuenean Iruñeko zezen plaza bete izana (Castro, 1999: 51). Aldiz, PSOE, EAJ eta PCE-EPKren presentzia oso murrizta zen (Caspistegui eta Garde, 1999: 120). Edonola ere, aurretik aipaturiko hausturaren aldeko talde hauen pisua Trantsizioaren garapenean talde

abertzale eta independentistengana igaro zen. Eraldaketa honetan zeresan nabarmena izan zuten Amnistiaren Aldeko Batzordeek konbokaturiko Amnistiaren Aldeko Asteek eta batez ere Askatasunaren Ibilaldiak (Arbeloa, 1999: 460-462).

Urte hauetan tentsioa nabaria zen bizitza politikoan eta kaleetan, horren adierazle izan daitezke 1976ko Jurramendiko gertaerak. Karlismoak garai hartan bi adar zituen: bata, Sixtoren jarraitzaile ultraeskuindarrek osaturikoa eta bestea, Carlos Hugok gidatutako sozialismo autogestoinario eta abertzaletasuneranzkoa. Gauzak horrela, Jurramendin urteroko erromerian, estatuaren aparatuek “Errekonkista Operazioa” antolatu zuten, lehenengok bertaratutakoen aurka oldartu eta tirokatzeraino iritsi ziren, hildakoak, zaurituak eta izua zabalduz (Arbeloa, 1999: 415-416).

Estatu aparatuen eta inkontrolatuen arteko lotura estua zen 1978an. Maiatzaren 14an, Amnistiaren Aldeko Aste berri baten testuinguruan, ETA(m)-k hildako bi guardia zibilen hiletetatik 400 bat ultraeskuindarrek Iruñeko Alde Zaharrerantz jo zuten (Martinez, 2011, 14). Urtearen hasieratik polizia eta ETAre arteko enfrentamenduak ugariak izan ziren, esate baterako: urtarrilaren 11n polizia bat eta ETako bi kide hil ziren tiroketa batean (*El País*, 1978/07/12) eta Martín Villa Barne ministroa “*Dos a uno a nuestro favor*” esanez agertu zen komunikabideen aurrean (Baby, 2009: 194). Hiriko karriketarik ibili ziren 400 inkontrolatu hauek makil, porra eta kateekin jipoiak emanaz zuzendu ziren LCR-ETA (VI)-k Zapateria kalean zuen egoitzara, koktel molotovak egunkarietan ezkutatuta zeramatzatela. Sartzea lortu ez zuten, atearen bestaldetik barnekoei tiro egin zieten. Kontra egin zienik ere egon zen eta liskar hauetakoren batean ultraeskuindarretako batek bere pistola atera ondoren, labankada bat jaso zuen. Zauritua guardia zibilaren Juan Antonio Eseverri tenienteordea zen, aste baten buruan hil zena. Alabaina, enfrentamenduen unean ez zegoen zerbitzuan eta kale-jantzian zihoan. Poliziaren jarduna LCR-ETA (VI)-ko lokalekoak atxilotzera mugatu zen. Egun batzuk geroago, bost pertsona prozesatuak izan ziren tenienteordearen heriotzaren errudun izatearen akusaziopean. Haien askatasuna eskatzeko uztailaren 3an udaletxeko bigarren pisuan haien senide eta lagunek itxialdi eta gose greba bat abiatu zuten. Horregatik, uztailaren 6ko txupinazoa lehendabizikoz lehen solairutik bota zen, fatxadaren goialdean “*Para San Fermín todos en casa*” zioen pankarta handi bat alderik alde eskegia zegoela (CIPMP, 1978: 5).

Hurrengo egunean, uztailaren 7an, zezenketen bukaeran La Única peñak bere tendiduan geratzea erabaki zuen, bazkidea baitzuen Eseverri auzian prozesatuetako bat. Horren aurrean poliziek istiluen kontrako materialarekin peña hartako kideak kanporatzeko agindua jaso zuten. Zaldien patioko atetik metro eskasetara zeudenean, ordea, barnera ez sartzeko adierazi zitzairen. Momentu kritiko hauen ostean, jaiek ohi bezala aurrera jarraitu zuten (CIPMP, 1978: 6).

## 1.2. Gertakariak

Uztailaren 8ko zezenketetan jai giroa zen nagusi. Bukatzean, seigarren tendidutik berrogeita hamar bat pertsona zezentokira jaitsi ziren “*Amnistía total/Presoak kalera/San Fermín sin presos*” idatzirik zeraman pankarta bat zabalduz. Plazari bi bira eman ostean, hirugarren tendiduaren erdialderantz ailegatzerakoan, bertako zenbaitekin hika-mikak izan zituzten. Hala eta guztiz ere, egoera berriz lasai zegoenean, plazara 40 bat polizia armatu sartu ziren aurrean zuten orenen aurka joanez (CIPMP, 1978: 7).

Asaldadura ikaragarria izan zen ihes egiten eta hareara poliziei aurre egitera jaitsitakoen artean. Jasotako erantzunarengatik poliziek atzera egin behar izan zuten birritan, berriz ere bortiztasun handiagoz sartzeko. Eraso hauetan nahieran erabili zituzten ke-potoak, borrak, gomazko pilotak eta suzko armak (CIPMP, 1978: 10-11).



Polizia armatuak zezen plazara

sartzen

Kostata baina jendea zezen plaza husten joan zen.

Inguruko kaleetatik manifestazio jendetsu eta espontaneoak antolatu ziren, poliziak gogor erreprimitu zituenak. Istilurik larrienak gobernu zibilaren inguruan jazo ziren. Egoera honetan FOP delakoek istiluen kontrako materiala suzko armengatik ordeztu zuten eta haietako bala batek Germán Rodríguez gazte iruindarra erail zuen. Ez zituen berriz begiak irekiko 23 urteko gazte hark (CIPMP, 1978: 12). Horren gazte izanagatik ere, aspaldidanik zebilen politikan. LCR-ETA VI-ko kidea zen eta kartzelan egondakoa zen. Halere, momentu haietan buruzagitza politikotik at zebilen, eguneroko borroketan murgilduta (*Argia*, 2008/06/22).

Bien bitartean, gobernu zibilean bilduak ziren gobernadore zibilak deituak alderdi politiko, peñen batzorde eta sindikatuen ordezkariak. Adostasun batera iritsi baziren ere,

ez zuten egoera lasaitzea lortu. Horrela, enfrontamenduak, kotxe kiskaliak, suteak, barrikadak eta poliziaren kargak gau osoan zehar luzatu ziren (CIPMP, 1978: 13-14).

Hurrengo egunean hirian anabasa eta suntsiketa ziren jaun eta jabe. Peñek deialdia egin zuten 30.000 pertsona baino gehiago bertaratu ziren Germánen hiletara joateko. Hilerr



Germánen hiletan hilkutxa eramaten

ondoko zelai batean ospatu zen. Patxi Larrainza eta beste bi apaizek meza ematen ari zirela, gorpua zeraman segizioa ailegatu zen. Jarraian, hilkutxa hilerrira eramaten eta peñen ordezkari bat, Germánen arreba, Lorenzo Contreras LKiko kidea eta Jesus Maria Velasco Iruñeko alkatea mintzatu ziren.

“Internazionala” eta “Eusko Gudariak”

abestuz bukatu eta manifestazio batean abiatu ziren Germán hil zuten tokirantz, isiltasunean eta presentzia polizialik gabe. Iristean isilune bat egin eta berriz ere aurretiko abestiak kantatu zituzten (*El País*, 1978/07/11).

Uztailaren 11n gertatutakoaren protesta moduan zabaltzen ari ziren mobilizazio eta greben testuinguruan, manifestazio batean Joseba Barandiaran 19 urteko gazte astigarragatarra erail zuten FOP deiturikoen Donostian. Egun hartan, jaiekin jarraitzeko ezintasunaren aurrean gaueko bederatzietan udalak amore eman eta bertan behera utzi zituen ospakizunak (Iturbe *et al.*, 1978: 40-42).

Uztailaren 13ko eguerdi partean, Miranda Ebroko Polizia Armatuaren konpainia bat Erreterian izua zabaltzen ibili zen. Herrian zehar edonolako establezimenduak eraso eta txikizioak egin zituen, ibilgailuak erretzeraino ailegatuz. Gomazko pilotak eta ke-potoak jaurti zituzten 23 biztanleren etxeetara, zenbait sute eta gasen ondoriozko intoxikazioak eragin zituztenak (CIPMP, 1978: 65-67). Egun honetan Martín Villa Barne ministroak Iruñeko gertakarien harira adierazi zuen: “*Lo nuestro son errores lo otro son crímenes*” (Iturbe *et al.*, 1978: 56).

### 1.3. Gertakarien argipena

Azaldutako gertakariak interpretatzeko moduak bi ildotan bana daitezke. Batetik, zenbaiten irudikoz, guztia istripu edo ezbehar moduko bat baino ez zen izan. FOP

deitutakoen kideetako batzuen gehiegikeria bat. Horrelako ekintzak egiten zituzten sozialki isolaturik, gaizki ordainduak eta inpunitatearekin jardutera ohituak zeudelako, asko jatorri militarrekoak eta ultraeskuindar ideologiakoak ziren eta, psikologikoki presionatuak baitzeuden haien kideak ETaren ekintza armatuetan hiltzen ziren erraztasunarengatik eta abiatuako erreforman depuratuak izan ez zirelako (Toral, 2015: 140-141). Bestetik, beste hainbaten aburuz, planifikatutako zerbait izan zen, helburu eta estrategia jakin batzuei erantzuten ziena.

Orobat, garaiko testuinguruan ere eztabaida ezina dena da FOP deiturikoen izandako jokaera guztiz neurrigabekoa izan zela. Poliziaren beraren txosten batean onartzen zenez, 5.000 gomazko pilota, 1.000 ke-pote, 9 mm-ko laburreko 100 bala eta 9 mm-ko 50 bala jaurti ziren, kopuruak oraindik ere handiagoak izan zirela pentsa daitekeen arren. Honenbestez, eragindako kalteak ikaragarriak izan ziren, ondoren aipatzen diren datuak gutxienezko kopuruak izanik. Germáñez gain, balazko zaurituak beste 11 izan ziren eta 170 pertsonen osasun zerbitzuetara jo behar izan zuten. Horregatik, harrigarria da soilik hildako bat egon izana. Kalte ekonomikoaren kopurua osotara 116.991.000 pezetetan zehaztu zen eta 250.000 turistek utzi zuten hiria, bisitarien %80ak. Kalte moralak ere, geroago azalduko den moduan, izugarriak izan ziren (CIPMP, 1978: 58; 60 eta 62).

Bestalde, ezin dira inolaz ere justifikatu zezen plazako eta ondorengo erasoak giroaren ondoriozkoak izan zirela esanez. Izan ere, biolentzia eta tentsio une irmoagoak egon ziren aurreko urteetako jaietan, 1973 eta 1976 urteetakoetan kasu (Iriarte, 1995: 287).

Ausazko zerbait izan ez zela argi geratzen da. Aurretiaz hagitx zabaldua zegoen ustea zen zerbait gerta zitekeela. Zentzu honetan doaz Fermín Goñiren, El Paiseko korrespondentzialaren, hitzak *Sanfermines 78* dokumentalean: “(...)estaba sobre aviso de que algo iba a pasar y sí que puedo decir que el día 7 había otros 200 policías que estaban entre el parque de bomberos y la plaza de toros, estaban esperando ordenes para entrar”. Poliziak zezen plazako planoak hilabete batzuk lehenago eskatu zituen eta aurreko egunean ere sartzear egon zen (Aoiz, 2005: 293). Era berean, erasoaren buru Miguel Rubio komisarioa zihoan, polizia inkontrolatu batzuen auzi bat izan ez zela agerian utziz (CIPMP, 1978: 8).

Baina zezentokikoa jasandako errepresio guztiaren txinparta baino ez zen izan. Germán erail zuten kalearen inguruko bala tiroak 0,80 eta 2,30 metro artekoak izan ziren,



dispertsatzeko baino, hildakoak eragiteko borondatea azaltzen dutenak (Contreras, 2017: 21). Jose Antonio Urbiolak poliziaren irratietatik ondorengo aginduak jaso zituen: *“Preparar todas las bocachas y tirar con todas las energías y lo más fuerte que podáis. No os importe matar”* (CIPMP, 1978: 59). Izan ere, Fermín Goñik *Sanfermines 78* dokumentalean adierazi bezala,

*“Yo tenía, como digo, la confianza de que la policía iba a hacer algo, porque el comandante Ávila no había venido a Pamplona exclusivamente a sustituir a un colega suyo de profesión el comandante Imaz, sino había venido a dar un escarmiento a esta ciudad porque esta ciudad era muy rebelde”.*

Sanferminak odolez tindatzeko estrategia hau konstituzioaren eztabaida eta bozketaren urtean gauzatu zen. Hots, Trantsizioaren une gorenetakoa batean, auzi nazionalez eta autonomia estatutuek paper erabakigarria jokatu zutenean (Molinero eta Ysàs, 2015: 192 eta 196).

Trantsizioa proiektuen konfrontazioaren eta indar harremanaren ondorio izan zen. Batzuek Frankorik gabeko frankismo bati jarraipena eman nahi zioten. Beste batzuek erregimenaren erroekiko haustura bat planteatzen zuten. Azkenik, ordura artekoarekin erabat apurtu gabe erregimena erreformatu nahi zutenak zeuden (Caspistegui eta Garde, 1999: 156-157). Nafarroaren etorkizun instituzionalak ere, horiei estuki lotutako hiru bide jarrai zitzakeen. Batetik, berak bakarrik autonomia komunitate bat osatzerik zuen. Bestetik, Eusko Kontseilu Nagusi edo ordeztuko zuen erregimen autonomikoarekin bat egin zezakeen. Horietaz aparte, erregimen foral delako estatus berezi batekin bere eskubide historikoak marko konstituzional berrira egokitzeko proposamena zegoen (Enériz, 2007: 66).

Norgehiagoka honetan erreformaren aldekoak nagusitu ziren. 1967tik ezartzen saiatu ziren frankismoaren jarraipenezko proiektuak huts egin eta bere barneko multzo handi batek erreformaren aldeko hautua egin zuen. Hausturaren aldeko sektoreek haina indar izan zuten Arias Navarroren gobernuarekin bukatzeko, baina Adolfo Suárezen erreforma onartu zuten (Molinero eta Ysàs, 2015: 192). PSOE eta PCEk bat egin zuten adostasun horrekin, Moncloako Itunak sinatuz eta prozesu konstituziogilera batuz. Euskal lurraldeetan, ordea, bi alderdi hauek oso murrizak ziren eta hausturaren aldeko sektoreak askoz indartsuagoak ziren. Kotsentsu erreformista berrira erakartzeko *“eran*

*necesarias medidas policiales, medidas institucionales y la colaboración del PNV*” (Contreras, 2017: 25).

Norabide honetan kokatzen da Iruñean jazotako biolentziaren bortiztasuna. Izan ere, “(...)el régimen se reformó y sus miembros más aventajados organizaron la demolición controlada de las viejas estructuras del aparato franquista, mientras se esforzaban en controlar la calle con la represión(...)”(Sánchez, 2010: 16). Aurretiko Jurramendiko, Gasteizeko eta Errenteriako gertaerak ere ildo honetatik doaz (Contreras, 2017: 26).

Horregatik, horrelako ekintza errepresibo baterako unea eta tokia berariaz aukeratu ziren. Sanferminetan, Iruña jendez gainezka eta berebiziko oihartzuna duen egunetan, kasik nafar gizarte osoa beregana begira dagoenean, gertatu ziren jaiaren muina zen eta entzierro eta zezenketekin erreferentzialtasun osoa zuen zezen plazan, biltzen ziren 20.000 ikusleen aitzinean. Balaz zauritutako zenbait tendiduetako jendea izateak helarazten zuen mezua zen edonor eraso izan zitekeela. Beraz, edonolako istripu edo ezbehar bat baino, gertatutakoa alde aurretik planifikatutako zerbaiten moduan ulertzen da. Nafarrek hausturaren eta euskal batasunaren bidetik jarraituz gero, aurrean izango zutenaren adierazle bezala, azken batean, beldurra sortzeko mekanismo moduan (Sánchez, 2010: 16). Ikara honen lekuko dira zezen plazako edo kaleko istiluen ikusleen testigantzak (CIPMP, 1978: 33-41). Edota poliziak egun haietan “*Vascos, hijos de puta. Os vamos a matar a todos*” bezalako irainak zerabiltzala (CIPMP, 1978: 13).

Estrategia hau sektore borrokarienen aurrean kaltegarria zen, haien erradikalizatzea eragin zezakeen eta, hurrengo urteko udal hauteskundeetan HBk Iruñean izandako emaitzak horren adierazle izan litezkeelarik. Aitzitik, gizartearen gehiengoa erreforma eta Nafarroak komunitate autonomo bat berak bakarrik osatzea onartzera eramanean, horrelako errepresioa aurrez aurre aurkeztean. Izan ere, herritarrei transmititu zitzaizkien mezua zen: “*no nos importa acabar con los Sanfermines aunque todo el mundo nos esté mirando, imaginaos lo que podemos hacer si Navarra no se sosiega y se somete a la reforma*” (Aoiz, 2005: 294). Nafarroa hausturaren eta Eusko Kontseilu Nagusiaren eta 1979an onartutako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzako autonomia estatututik at geratu zen, estatu osoan herritarrek bozkatu ez zuten autonomia estatutu bakarra edukiz (Contreras, 2017: 25-27). Laburbilduz,

*“Los hechos de Sanfermines de 1978 fueron un acontecimiento histórico. En cierto modo, puede considerarse el momento cumbre de la transición en*

*Navarra, el que expresa de manera más tajante la existencia de una estrategia político-militar para imponer la reforma y en concreto la partición*” (Aoiz, 2005: 296).

## 2. MNEMOHISTORIA: 1978KO SANFERMINEN MEMORIAREN ERAIKUNTZA

Gertakari hauen memoriaren eraikuntzan alde zaureratik argipen bat egin beharra dago: eraiki dena 1978ko Sanferminetako gertakarien inguruko oroimena izan da. Germán ezinbestean beti presente egon da bertan, baina pertsona konkretu batetik baino askoz haratagorako zerbait izan da. Orokorrean, Iruñeko hiriak eta nafar gizartearen zati handi batek jasandako gertakariei buruz eginiko memoriaren eraikuntza izan da.

### 2.1.- 1978 eta 2004 arteko memoriaren nondik norakoak<sup>1</sup>

Urte hauetako memoriaren hasiera gertakarien ondotik azaldutako aldarriak izan ziren, esate baterako: “Errudunei zigorra”, “Herriak ez du barkatuko”, “Justizia” eta Germánen oroimenaren ingurukoak. Honen erakusle dira Germánen hiletatik erail zuten tokira egindako manifestazioaren buruan zihoazen alderdi, sindikatu eta gazte antolakundeek zeramatzen zuten pankartak. Hurrengo urteetako aldarrikapenak ere ildo berdintsuetatik joan ziren (IPF, 2014: 36-37).

Azkar zehaztu zen ere aurrerantzean memoria honek jarraituko zuen eskema. *Mutatis mutandi* antzera mantendu zen XXI. mendean sartu arte. Urtean zehar ekintza andana egiten ziren, haietako asko uztailaren 8rako prestaketa moduan funtzionatzen zutenak. Izan ere, hura zen gertatukoaren memoriaren erdigunea. Sanferminetan izateak bere oihartzuna handitzen zuen. Egun honetako memoriaren eraikuntzak hiru karril, hiru parte-hartzaile, zituen.

#### 2.1.1.- Germánen ingurukoak

---

<sup>1</sup> Honako atal honen iturri nagusietako bat egunkariak izan dira. Horretarako, geroago aipatuak izango direnez ez ezik, ondorengo egunkariak kontsultatu dira: 1980tik 2016ra arteko *Diario de Navarraren* uztailaren 9ko ale guztiak urtez urte; 1985, 1988, 1991ko *Eginen* uztailaren 9ko alea; 1984, 1988, 1989 eta 1990eko *Navarra Hoyren* uztailaren 9ko alea, 1998ko *Diario Noticiasen* uztailaren 9ko alea eta 1998ko *Egunkariaren* uztailaren 9ko alea. Beste iturrietako bat Sabino Cuadra, Xabier Barber eta Rubén Marcillari eginiko elkarrizketak izan dira.

Memoria honen ildo zentrala, haien gertutasunarengatik, LKiko kideak eta Germánen koadrilakoen esku egon zen. Xabier Barberren, hasierako talde honen eta LKiko militante izandakoaren, irudikoz, hasieratik argi izan zuten gertatutakoa “ezin genuela ahaztu hain erraz, batez ere errudunik gabe”.

Sabino Cuadraren, talde hartako kidearen, aburuz, nahiko modu informal eta espontaneoan ekin zioten, eraila izan zen tokian omenezko ezer jartzearen inguruan. Gertatu ondoko egunetan “*Aquí fue asesinado nuestro camarada Germán/Gogoan zaitugu*” idatzia zuen pankarta eta bere argazkiak egon ziren. Haiekin batera ageri zen Che Guevarak esandako eta gerora Juan Paredes Manot Txikik bere anaia txikiei argazki baten aurrealdean idatzi eta bere hilobiko hiltartz moduan erabilitako esaldi ezaguna: “*Mañana cuando yo muera no me vengáis a llorar. Nunca estaré bajo tierra, soy viento de libertad*”. Egun batzuen buruan, toki hartako lurra harri koxkorrekin landu eta Germánen oroimenezko harrizko estela bat ipini zuten.

Aitzitik, 1978ko urriaren 9an kolpeka apurtua izan zen. Dena dela, urriaren 10ean birjarri zuten handiagoa eta brontzekoa zen berri bat, kolpeka ezin zitekeena apurtu. Ondoa, kartel bat zuen “*la colocaremos tantas veces como la rompáis, txakurrak, ¡que se vayan!*” zioena, poliziei egotzi baitzieten eraso (Contreras, 2017: 28). *Oroitarría, piedra de toque* dokumentalean ikusgai den bezala, urte batzuetan iraun bazuen ere, urtero uztailaren 8an omenaldiak bertan egin eta urtean zehar lore-sortak zituenez, azken batean erreferentzialtasuna zuenez, lehergailu batekin suntsitu zuten. Orduan, berri bat kokatu zuten, handiagoa, lodiagoa eta sakonagoa.



Monolitoaren inguruan sortutako taldeak urtean zehar ekimenak egiten zituen gertakariak gogoratzeko. Garrantzitsuena, eta hein handi batean haietako askoren jomuga, uztailaren 8ko ekintzak ziren, eguerdi aldera antolatu ohi zuten manifestazioa kasu. Gaztelu Plazatik ateratzen zen, sarri Patxi Urrutiak, LKiko militante eta

Germánen omenezko monolitoan elkarretaritze bat LKiko pankarta batekin atzean

Zizurreko zinegotziak, irakurri ohi zuen komunikatu baten ostean eta Orreaga Etorbideko estelaren aurrean amaitzen zen, “Eusko Gudariak”, “Internazionala” eta antzekoekin. Usu entzuten ziren poliziaren aurkako eta presoen, amnistiaren, ETaren eta Germánen aldeko kontsignak. Orokorrean, mobilizazio honen deialdiarekin bat

egiten zuten hausturaren aldeko indar politikoek eta herri mugimenduko eragile anitzek. Eragina izan zuen Germán Alde Zaharreko Elkarte, mugimendu ekologista eta beste hamaika borroketan ibilia zela. Gerora mugimenduko kide izandako Rubén Marcillaren iritziz, oinarritzkoa zen beti *“el esfuerzo que había para que todos los colectivos de Iruña participaran y asumiesen el ekitaldi del 8 de julio, que ha estado bien, se ha sumado todo el tejido asociativo”*. Horren lekuko da 1980ko deialdiari atxiki ziren EMK, HB, LAIA, LC, LKI, OCE (BR), PCE (ML) eta PTE alderdi politikoak, LA eta SU sindikatuak, Komite Antinuklearrak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Alde Zaharreko Bizilagunen Elkarte (Diario de Navarra, 1980/07/09).

## 2.1.2- Jaiaren muina: peñak

### 2.1.2.1.- Peñen jarrera aldaketa

Aurreko ataletan argi geratu den moduan, peñek guztian izan zuten papera zeresan handikoa izan zen. Jose Mari Esparza lekukoak lan honetarako elkarriketa batean esandakoari jarraiki haiek izan ziren herritarren aurrean erreferentzialtasuna izan zutenak. Xabier Barberren hitzetan *“peñek oso bortizki bizi izan zuten”* eta *“oso barneratua geratu zen”*. Horregatik, jazotakoa inflexio une bat izan zen haien artean Trantsizioan ezarritako erregimenarekiko aurrez aurre jartzeko. Orduetik, oso konprometiturik egon ziren aztergai den memoriaren garapenean, izan ere,

*“Al socaire de lo sucedido, se formó una unidad estable de acción entre todas las peñas sanfermirenas que adoptaron posturas muy críticas ante la represión; todas incluyeron la ikurriña entre los símbolos de su sociedad y la colocaron ostentosamente en sus sedes y pancartas; adquirieron compromiso con el euskera y hasta cambiaron el ritmo de sus txarangas, incorporando fanfarres, sobre todo guipuzcoanas, que dieron un brío nuevo a los sanfermines”* (Esparza, 2013: 716-717).

### 2.1.2.2.- Hurrengo ospakizunen hastapenak<sup>2</sup>

1978ko uztailean bertan peñak prestaketetan hasi ziren, 1970eko hamarkadatik Nabarrerria auzo iruindarreko bizilagunek antolatutako Sanfermin Txikiko jaiak izandako handienak izan zitezten. Hauek irailaren 25aren hurbileneko asteburuan iruindarrek iruindarrentzat egindako festak ziren, kanpoko bisitarien etorrera jendetsurik

---

<sup>2</sup> Atal honen iturria *Iruñeko Peñak, historia bizia* liburuko 246 eta 247 orriak dira.

gabekoak. Aurrera atera nahi zituzten jaien tamainako ospakizunak bideragarri izateko, behintzat zezenketetako 8.000 abonamendu saldu behar zituzten eta baita lortu ere. Gainera, uko egin zioten edonolako arrazoiengatik, baita irail amaierako eurite sarriengatik ere, zezenketaren bat bertan behera geratuz gero, aurretik ordaindutakoa berreskuratzeari. Azkenean, inoizko giro eta parte-hartze paregabearekin ospatu ziren. Zezenketetako eguzkitako tendiduak jendez lepo egon ziren, harik eta beren edukiera handitu behar izan zen Iruñeko peñez ez ezik, beste herrietako hainbat sar zitezen. Igandeko Aldaparen San Fermin prozesioa ere oso jendetsua izan eta irailaren 24 hartan, peñetako gazteek eraman zuten saildua. Gauean, Estruendo de Iruña, uztaileko jaietako asteko egun batean txistu, danbor eta dena delakoekin kaleak alaitzen dituen, atera zen karriketarik.

1979ko Sanferminetan tentsioa bor-bor zegoen aurreko urteko esperientziarengatik eta urte hartako ekainaren 3an Tuteran Guardia Zibilak Gladys del Estal donostiar ekologista tiro batez hil zuelako Bardeetako tiro eremuaren eta Hego Euskal Herrian eraiki nahi ziren lau zentral nuklearren aurkako protesta batean. Alta, hartutako zenbait neurrik jai giroa eta ilusioa itzultzen lagundu zuten. Uztailaren 8ko zezenketetan, poliziaren erasoaren urteurrenean, gordintasun handieneko uneetan, Supermanez jantzitako peñetako gazte bat itzal eta eguzkitako tendiduetatik barrena airean eraman zuten besoz beso, zezenketen lehendakariarengana ailegatzeraino. Sortutako barre algarek plaza lasaitzen lagundu zuten. Egun hartan ere, peñek Germánen hilobira lorekoro bat eraman zuten. Abuztuan, UPN alderdiak peñei gutun publiko bat igorri zien, jaietan izandako jokabide eredugarria goraiapatuz eta eskertuz. Hauek, ordea, errefusatu eta inplikazio eta konpromiso handiagoak eskatu zizkien gertakarien ikerketan.

### 2.1.2.3.- Denbora luzeko konpromisoa<sup>3</sup>

Peñek urte honetan ekin zioten gertakarien omenezko ekimenak egiteari gerora mantendutako eskemaren zertzeladak emanez. Uztailaren 8ko zezenketak hasi aitzin, pankartak jartzen zituzten tendiduetan gertakarien oroimena, errudunei zigorra eta

---

<sup>3</sup> Atal honen iturri nagusietako bat egunkariak izan dira. Horretarako, geroago aipatuak izango direnez ez ezik, ondorengo egunkariak kontsultatu dira: 1980tik 2016ra arteko *Diario de Navarraren* uztailearen 9ko ale guztiak urtez urte; 1985, 1988, 1991ko *Eginen* uztailearen 9ko alea; 1984, 1988, 1989 eta 1990eko *Navarra Hoyren* uztailearen 9ko alea, 1998ko *Diario Noticiasen* uztailearen 9ko alea eta 1998ko *Egunkariaren* uztailearen 9ko alea.

antzekoak aldarrikatuz. “El silencio” jo eta plaza zutituta isiluneko minutu bat egiten zen. Horren ostean, maiz “Herriak ez du barkatuko”, presoen eta amnistiaren aldeko eta poliziaren kontrako aldarriak oihukatu eta “Que se vayan”, “Eusko gudariak” edota “Hator hator etxera” bezalako abestiak kantatu ohi ziren. Zenbait urtetan, hainbat peña zezenketak bukatu aurretik atera ziren, 1981 eta 1988an kasu (*Diario de Navarra*, 1981/07/09 eta 1988/07/09). Edonola ere, gaur egunera arte mantendu den ohitura izan da zezenketak amaitzean peña guztiak musikarik gabe eta pankartak tolestuta irteteara



Zezen plazako peñen pankarta gertakarien 26. urteurrenean

Germánen omenezko monolitora joateko. Hor berriz ere “El silencio” isiltasunean jo eta aldarri edo abestiren batekin bukatu ohi izan da, berriz ere pankartak zabaldu, txarangek jotzeari ekin eta jai giroa berreskuratzeko. Halere, denboran zehar aldaerak izan ditu. Honetaz gain, uztailaren 11n peñek Astigarragan Joseba Barandiaran omendu izan dute.

#### 2.1.2.4.- Ikerketa batzordea eta prozesu judiziala

Gertatutakoaren harira, bi ikerketa batzorde sortu ziren, bata herritarra eta bestea peñen batzordeak hauspotua. Bigarrego hau izan zen ibilbide oparoagoa izan zuena, ikerketa eta prozesu judizialaren pisua soinean eraman zuena.

Lehenengoari dagokionez, uztailaren 8tik 9rako gauean zehar ikerketa batzorde bat sortzeko ideia azaleratzen joan zen, gertakariak argitu eta arduradunen gaineko neurriak hartzeko xedearekin. Horrela, eguerdiko 12:00etan udalak ezohiko batzar bat ospatu zuen Nafarroako diputatu eta senatari, alderdi politiko –tartean PSOE eta EAJ-, sindikatu, peñen ordezkari, antolakunde feminista, Iruñeko udalbatza, hiritar eta gazteen ordezkariekin. Aho batez erabaki zuten Iruñeko ikerketa batzordea sortzea, udaletxean egoitza izango zuena. Donostian eta Errenterian ere, Iruñeko adibidea eredu izanik antzekoak eratu zituzten. Uztailaren 27an Iruñekoak 2.500 pertsonen aurrean ekitaldi bat ospatu zuen (CIPMP, 1978: 16).

Bigarregoa peñen asanblada askoren ostean sortu zen uztailaren 13an. Jazotakoa argitze aldera, ahalik eta deklarazio eta datu gehien biltzeari ekin zion. Nahiz eta uztailaren 19an alderdi politiko gehienek beste batzordetik alde egiteko erabakia hartu, honek bere jardunean jarraitzeko hautua egin zuen (CIPMP, 1978: 16). Haien hautuan

berresten zirela ezagutzera eman zuten egunean bertan, *Comandos de Acción Nacional* talde ultraeskuindarraren bonba batek eztanda egin zuen Alegría de Iruña peñak Jarauta kalean zuen egoitzan, ikerketa batzordea biltzen zen tokian hain zuzen ere. Abuztuaren 18an 3.500 herritarrek betetako Anaitasuna pabilioian ikerketa txostenaren lehendabiziko emaitzak eman ziren aditzera (IPF, 2014: 240). Gerora, Ministerio Fiskalak gogor kritikatu zuen. Inpartzialtasun falta egotziz, justizia banatzeko nor ez zirela esan eta justizia epaitegiek zehaztuko zutela adierazi zuen. Aitzitik, aurrerantzean epaitegietan prozesu honek egindako bideak kolokan jarri zuen adierazpen hau (IPF, 2014: 240).

Gauzak horrela, Iruñeko Gau Epaitegiak gertatutakoarengatiko eginbideak ireki zituen eta hiru prozedura judizial eratorri ziren. Peñen batzordeak espezialitate desberdinetako lau abokatuk osaturiko talde juridiko bat izendatu zuen. Miguel Rubio komisarioaren kontra auzia jarri zuten, ikerketek zehatz zitzaketen beste arduradunen aurka salaketa jartzeko atea irekita utziz (CIPMP, 1978: 67-68).

1982an Nafarroako Audentzia Probintzialak erabaki zuen ez prozesatzea inor. Honen aurka protestatzeko komunikatu bateko sinatzaileak atxilotuak izan ziren (IPF, 2014: 240 eta 270). Azkenean, 1983ko ekainaren 29an 321/1983 Autoaren bidez Auzitegi Konstituzionalak jarritako errekursoari ezezkoa eman zion. Horrela, 1978ko gertakariengatik ez zen inor kondenatua izan eta inolako ardura politiko eta erantzukizunik argitu eta ezarri gabe eman zitzaion bukaera prozesu judizialari.

Alabaina, prozesu judizialean irregulartasunak nabarmenak izan ziren, José Antonio Urbiola Ikerketa Batzordearen abokatuak *Sanfermines 78* dokumentalean azaldu bezala. Alderdi ilun ugari geratu ziren argitzeke. Peñen txosteneko hitz hauek txit argigarriak dira: “*La razón posible de que subsistan tantos interrogantes en dichos casos, bien pudiera residir en las implicaciones políticas de aquellos acontecimientos*” (CIPMP, 1978: 68). Ildo beretik zihoan Miguel Castells HBko senatariak gertakari hauen eta beste hainbaten egileen inpunitateaz eginiko salaketa 1979ko ekainaren 4tik 9ra *Punto y hora de Euskal Herria* aldizkariak ateratako astekariko “Insultante impunidad” artikuluan. Idatzitakoarengatik, Auzitegi Gorenak 1983ko urriaren 31n urtebeteko kartzela zigor eta gaitasun-gabetzera kondenatu zuen eta epaia Auzitegi Konstituzionalak berretsi zuen 1985ean. Hala ere, 1992ko apirilaren 23an Europako



Giza Eskubideen Auzitegiak Espainiaren aurkako sententzia plazaratu zuen, kondenatua libre utziz eta 3 milioi pezetako indemnizazioa jaso zezala ebatziz (*ABC*, 1993/05/21).

### 2.1.3.- Presoen inguruko mugimendua

Presoen auziak uztailearen 8ko egun honetako ekintzetan ere zeresana izan zuen, azaldutako gertakarietan amnistiaren eskakizuna eta presoen gaiak oso presente egon ziren bezala. Aldarrikapen hauek hasieratik egon ziren eta denborarekin uztailearen 8an bere harritxo jarri zuten, maiz Amnistiaren Aldeko Batzordeen bidez egikaritu zena. Urte desberdinetako *Diario de Navarra*, *Egin*, *Navarra Hoy*, *Diario de Noticias* edo *Egin* egunkarietako aleek jasotzen duten legez, Amnistiaren Aldeko Batzordeek eta Senideak elkarteek bazkari bat egiten zuten. Bertara Iruñeko HBko zinegotziak zihoazen, Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernuarekin egiten zuena errefusatu. Arratsaldean, peñen ekimenaren ostean, manifestazio bat burutzen zuten eta ekintza hauetan presoen argazkiak atera eta haien askatasuna aldarrikatzeaz gain, bere tokia izan ohi zuten Germán eta 1978ko gertakarien oinazeak.

### 2.1.4.- Memoriaren garapena urte hauetan

Urte hauetako memoriaren eraikuntzan aipatutako eskema berdintsu mantendu bazen ere, zenbait aldaera ikus daitezke.

Lehenik, 1978 ondoko urteetan gertatutakoak oihartzun handiagoa izan zuen. Honek bi arrazoi izan litzake: batetik, denboran hurbilagoa zenez, herritarrek biziago eta gertuago sentitzen zuten; bestetik, 1980ko hamarkadako urteak biziki gatazkatsuak izan ziren eta ondorioz, mugimendu honek, beste askok bezala, indar handia izan zuen.




1988ko omenaldi jendetsua

Bigarrenik, oihartzun handiagoko urteurrenak bosgarren, hamargarren, hamabosgarren, hogeigarren eta hogeita bosgarrenak izan ziren. Elkarrizketatutako Rubén Marcillaren hitzek eta aztertutako egunkarien testigantzek erakusten dute bereziki azpimarragarria izan zela hamargarren urteurrena. Peñek gertatutakoari buruzko erakusketa bat antolatu zuten zezen-plazako pasabideetan, zeinaren aurka UPN azaldu zen. *Errudunei Zigorra*

txostena aurkeztu zuten, aurretiazko ikerketa azken hamar urteetako datuekin gaurkotzen zuena. Uztailaren 8an haien egoitzetan ez zen musikarik entzun, ez zuten txarangek jo eta arratsaldea Gaztelu Plazan igaro zuten 3.000 pertsonako manifestazio bat antolatuz. Zezen plazako eguzkiko harmailak hutsik geratu ziren eta eserlekuak kolore horiko pankarta erraldoiekin eta dolu-xingoladun ikurrin handi batekin estali zituzten. Megafoniatik ohar bat zabaltzen saiatu arren, UPNko Maribel Beriainek, zezenketen lehendakariak, galarazi zuen (IPF, 2014: 318). Urte honetan ere hainbat egilek *Germán* izeneko komikia egin zuten gertatutakoa zabaltzeko. Edonola ere, ez zen honen tankerako lehen egitasmoa, 1979an Ernesto Murillo Simónek *Preludio de los Sanfermines 78* egin baitzuen. 1998an ere, ondoko urteetan baino hedapen handiagoa izan zuen. Eguzki Bideoak kolektiboak –Rubén Marcilla tarteko- 21 minutuko bideo bat egin zuen, 23:30ean hiriko txosnetan ikusgai izan zena. Ekainaren 27an peñek eta beste zenbait taldek Labrit pilotalekuan omenaldi jendetsu bat burutu zuten (*Egunkaria*, 1998/07/09).

Hirugarrenik, aipaturiko eskema berdintsu mantendu arren, beheranzko joera bat egon zen. Denborarekin, gertatutakoa lausotzen joan zen eta manifestazioak egiteari utzi zioten. Norabide honen adierazle da 1985ean 2.500 pertsonako manifestazio bat egin zen bitartean, 2005ean soilik 80 pertsona elkartu zirela estelaren aurreko kontzentrazioan (*Diario de Navarra*, 1986/07/09 eta 2005/07/09). Azken urte honen ingurukoak izan ziren ziurrenik unerik ahulenak.



<sup>4</sup> Grafiko honen 1979tik 2014ra arteko datuak *Iruñeko peñak, historia bizia* liburuko 247-524 orrien artean ikusgai dauden peñen urtekako pankarten irudien azterketa dute iturri eta ondorengo bi urteetako datuen iturria <http://www.sanfermin.com/es/blog/pancartas-de-las-penas-para-las-fiestas-de-sanfermin-2016/irudien> web orria da. Honela, peñen jaietako pankartetan 1978ko gertakarien presentziak urtez urte izan duen bilakaera ikus daiteke, azaldutako garapenaren beste adierazle bat izanik.

## 2.2.- Hilarria

Estatuan 2000tik memoria historikoaren inguruko mugimendua garatu zen, aurretiaz egondako isilune eta ahanzturari erantzunez. Aztergai den kasuan 2005etik memoriaren eraberritze epe bat ireki zen bide berriak jorratu zituenak eta abiatzeko bi adar izan zituenak.

Batetik, 2005ean *Sanfermines 78* dokumentala aurkeztu zuten José Ángel Jiménez eta Juan Gautier nafar zuzendariek. Bertan hogeita bosgarren urteurreneko oroimen ekintzetatik abiatuta gertatutakoa azaltzen zen. Bizi izan zutenen zuzeneko testigantzak jaso zituzten. Gainera, TVEk 1978ko uztailaren 9ko albistegietan zezen plazaren gertakarien eta ondorengo istiluen inguruan emandako irudiak, TVEko artxiboetatik esanguratsuki desagerraraziak izan zirenak, berreskuratu zituzten telebista frantziarretik (*La Vanguardia*, 2013/07/08). Dokumentalak *Cádiz.doc* zinemaldiko hirugarren edizioan zuzendaritza hoberenaren saria eta 3.000 € jaso zituen (*El País*, 2005/09/16).



*Sanfermines 78* dokumentalaren kartela

Bestetik, mugimenduaren jaiotzean kimu izandako estelak berriz ere adaska biziberritu baten moduan ureztatu zuen memoriaren zuhaitz ahuldua. Izan ere, aurretik aipaturiko eta 2005era arte bere tokian mantendutako oroitarria UPNko Yolanda Barcinaren alkatetzak kendu zuen



Entzierroaren monumentua jarri zuteneko tentsio unek

urte hartan, Orreaga Etorbidean aparkaleku bat eraikitzeko egiten ari ziren obra batzuen aitzakipean (Contreras, 2017: 29). Behin

konponketa lanak bukatuta, monolitoaren tokian entzierroaren omenezko monumentu bat kokatu zuten, bere egileak beste alde batean hobeki ikusten zuela esan arren. Azken batean, ahul bazen ere, mantentzen zen memoriaren gainean behin betiko lauza bat ezarri nahi izan zuten. *Oroitarria, piedra de toque* dokumentalean ikusgai den legez, sinbolismoz beteriko jokaldi politikoa izan zen: lurretik ateratzen zela zirudien estela

txiki bezain esanguratsuaren aldean, monumentu askozaz handiago bat jarri zuten, are altuagoa izateko oinarri lodi baten gainean ipini zutena.

Eraso honen aurrean eta estela berriz zegokion tokian egoteko xedearekin, Hilarria izeneko kolektiboa eratu zen. Talde berriak denborarekin parte-hartzeari utzitako askori berriz ere batzeko parada eskaini zien. Gainera, monolitoa kentzeak oihartzun zabala izan zuen hirian eta 42 kolektiboren babesak jaso zuten. Antza, jazotakoak iruindar askoren kontzientzian utzitako hondarraren eta urte luze guzti horietan ereindako



Hilarriak antolaturiko  
elkarretaratzeetako bat

memoriaren uztak ziren. Modu honetan, Iruñeko autoritateek gertakarien memoria ezabatu nahian, are eta indar handiagoz azaleratzea eragin zuten. Izan ere, estelaz haratago *“Hilarria hablaba de memoria activa, de memoria viva, algo diferente a un mero recordatorio de unos acontecimientos, algo que resulta conflictivo con el presente”* (Contreras, 2017: 30).

Protesta moduan 2007ko hilabete guztietako 8an kontzentrazioak antolatu zituzten. Baina parte-hartzaile eta anitzagoa izate aldera, mobilizazioen horien ardura herri mugimenduko antolakundeek izan zuten, sindikatu eta talde feministek kasu. Gainera, jatorrizko estelaren plastikozko kopia erraldoi bat kontzentrazioz kontzentrazio eraman zuten. *Oroitarría, piedra de toque* dokumentalean Sabino Cuadrak esandakoari jarraiki *“(…)beti ibiltzen zen gurekin ezabatu zuten irudia plazaratzeko eta esateko Sanferminetakoa segitzen zuela kalean”*. Uztailaren 8ko omenaldia ere erreplikarekin egin zen. Egun hauetan, entzierroaren monumentua SEGI antolakundearen eta Germánen aldeko pintaketekin eta margo gorritz ziprztindua agertu zen.

Hilarriaren ekimenez, udalbatzan zazpi mozio eta aurrekontuei emendakin ugari aurkeztu ziren estela birkokatzeko. Martxoan UPN eta CDNk bere ordezkariak atera zuten aurrera. Baina 2007ko maiatzeko hauteskundeetan UPNk gehiengoak galdu eta irailaren 27an NaBAi, PSN eta EAE-ANVk Hilarriaren mozio bat onartu zuten estela birjartzeko. Ebatzi zen oinarrian plaka bat ipintzea ondorengo testuarekin: *“Pamplona en recuerdo de Germán Rodríguez y de los Sanfermines del 78-Iruñea Germán Rodríguez eta 1978ko Sanferminen oroitzapenetan”*. Udalaren gehiengoak erabakitako zerbait izangatik ere, Yolanda Barcina alkatesak

adosturikoa aurrera eramateko betebeharrak legala zalantzan ipini zuten. Horregatik, Hilarriak hil bakoitzaren 8an mobilizazioak konbokatzen segitu zuten erabakia bete artio. Urriko eta azaroko kontzentrazioetara jende andana joan eta presio herritarraren ondorioz, estela jatorrizko tokitik metro gutxira ezartzea onartu zuten 2007ko azaroaren bukaeran (Contreras, 2017: 30-31).

Gauzak horrela, abenduaren 15ean estela birjarri zuten. Aurreko hilabeteetako plastikozko estela haiekin zutela, errepresentazio instituzionalik gabeko ekitaldia ospatu zuten erraldoiekin, dantzariekin eta txaranga doinuekin alaituta. Behintzat borroka hori irabaztearen sententziarekin geratu ziren. Sabino Cuadrak adierazi bezala, “nahiz eta



Estelaren birkokatze unea

oso sinbolo txikia izan eta leku baztertu batean egon Germánen hilarria, azken finean hori beti eta betirako izanen da sinbolo bat jendearen buruan bueltaka ibiltzeko”. Hilarriak bere helburuak beteta erabaki zuten haren ibilbideari bukaera ematea. Hala ere, azkeneko agur

honekin eta mugimenduari dinamismo berri bat eman izanaren jakinarekin, eskua luzatu zien

bertaratuei, kolektiboki lanean jarrai zezaten gertatutakoaren memoriaren alde (Contreras, 2017: 29-31).

### **2.3.- Sanfermines 78: gogoan!**

#### 2.3.1.- Herri ekimenaren sorrera eta nondik norakoak

Deialdiari erantzunez eta bilera zabalago batera deitu ostean, 2008ko urtarrilaren 14an “Sanfermines 78: gogoan!” kolektiboa jaio zen bere helburuak egia, justizia eta ordaina lortzea zirela adieraziz (Contreras, 2017, 31). Ordura arteko goldatutako aldarri eta helburuekiko eraldaketa bat izan zen. Xabier Barberrek esandakoari jarraiki, Txileko eta Argentinako antzeko kasuetako memoriari lotutako mugimenduen eragina ere izan zuten. Era berean, 2007an egindako Memoria Historikoaren Legearen inguruan sorturiko eztabaiden eragina ere sumatzen da.

Lan honetarako elkarrizketa batean Rubén Marcillak, herri ekimen hartako kideak, ederki laburtu zuten prozesua: “*de ser una coordinadora de grupos hemos pasado a ser un grupo propio*”.

Ordutik, talde honek urtean zehar memoria lantzeko ekimen oparoak egin ditu historialari edota abokatuekin inizatiba, hitzaldi, dokumental emanaldi, erakusketa eta beste hainbat antolatuz. Urte osoko lanketa hauek uztailearen 8ko ekitaldia hauspotzeko balio izan die. Egun hartan dantzari edo antzerki emanaldiak izan dituzte eta musikak ere bere tokia izan du, hala nola: Jarauta 69 txaranga, Fer Izquierdoren hitz eta Mikel Elizagaren musikarekin eginiko eta Fermin Balentziak abestutako “Hilarria” kanta, La Chula Potraren “German” rapa, Burlatako Indecent-ez taldearen “Sin respuesta”... Horiez gain, urtean landutako gairen bat presente egon izan da. 1.000 eta 2.000 pertsona artean elkartu izan dira, xedea ekitaldiak ahalik eta parte-hartzaileen izatea izanik. Horretarako Mikel Zabaltza eta Angel Berrueta kasuko Nafarroako poliziaren biktimak, Gasteizeko martxoaren 3ko sarraskia, Joseba Barandiaran eta beste hainbat aldarrikapen elkarlotu dituzte. Sabino Cuadrak esan bezala, ez zelako kasu isolatu bat eta beraz, bere ordainak ere “(...)kontu zabalago bat(...)” izan beharko zuelako.

Haatik, presente egoten jarraitu dute peñek eta presoek aldeko mugimenduak. Horren



Presoen argazkiak ikusgai izan diren omenaldietako bat

adierazle da 2011ko elkarretaratzerako deialdia hirurek elkarrekin egin zutela (*Berria*, 2011/07/05). Peñek ere arratsaldetako zezen plazako ekintzekin eta Orreaga Etorbidera joaten segitu dute. Hurbiltasun honen adierazle da 2015ean elkarte honek La Jarana peñaren

hedatzea lortu zuen. Jende berria batu zen eta 40 kolektibo sozial, sindikal eta politikok bat egin zuten haien manifestuarekin. Haietako bakoitza arduratu zen

2008ko hilabete bakoitzaren 8an kontzentrazioak antolatzeaz uztailearen 8ra arte, 30. urteurrenera arte (Contreras, 2017: 31).




Peñen elkarretaratzeetako bat

Gainera, hizpide den herri ekimenak ondorengo talde memorialistikoekin harreman ederrak izan ditu: Ahaztuak 1936-1977/Olvidad@s 1936-1977, Amapola del Camino-Bideko Mitxingorria, Martxoak 3 de Marzo, La Comuna Presxos del Franquismo, Goldatu...

### 2.3.2.- Oroitarria, piedra de toque dokumentala

2008an Oroitarria, piedra de toque dokumentala egin zen. Eguzki Bideoak ekoiztutako



46 minutuko lan honen egilea Rubén Marcilla izan zen. Estelaren bilakaera aitzaki, gertakarien nondik norakoak azaltzen dira (Contreras, 2017: 31). Herri ekimenetik bultzatutako erantzuna izan zen hiru urte lehenago aurkeztutako dokumentalari. Egun haietan agitatutakoa dokumental batean azaltzearekin bat zetozen, are gehiago ikusleen aldetik izandako erantzun ona ikusita: TVE 2 eta ETBn emititu zuten eta Iruñeko Golem zinemetatik 14.000

Oroitarria, pertsona igaro ziren ikustera. Baina Xabier Barber piedra de toque elkarrizketatuak adierazi bezala, iritzi kontrajarriak zituzten dokumentalaren edukiaren inguruan, lehen dokumental hartan haiek esandakoaren kartela bat-batekotasuna eta beste batzuek, Jaime Ignacio del Burgo kasu, diskurtso osoago bat osatzeko beren hitzartzeak prestatzeko izandako aukeraren ondorioz.

### 2.3.3.- Unitate didaktikoa<sup>5</sup>

2011ko udazkenean ekimen berri bat abiatu zen: 1978ko Sanferminei buruzko unitate didaktiko bat aurkeztu zitzaion hezkuntza komunitateari. Egilea Nerea Pérez Ibarrola izan zen, Gerónimo de Ustáriz Historia Ekonomiko eta Sozialeko Institutuko kidea. Jendartera ezagutzera eman zuten 2012ko ekainaren 27an eta bertan Gerónimo de Ustáriz Institutuko José Miguel Gastón presidenteak esan bezala, unitate didaktiko honek



Unitate didaktikoaren aurkezpena

*“(...)permitía ampliar lo que eran los análisis epidérmicos y a veces sesgados que sobre ese periodo se estaban vertiendo en los libros de texto. En muchos de ellos ni siquiera se analiza el hecho, el acontecimiento, incluso en muchos de ellos ni siquiera se analiza en profundidad lo que es la Transición política”.*

Aurkezpenean Stee-Eilas, LAB eta ELA sindikatuen lana eskertu zen, institutu gehienetara unitatea heltzea lortzeagatik (Naiz, 2012/07/05).

<sup>5</sup> Atal honen iturria Unitate didaktikoa: Sanferminak 1978 unitate didaktikoa da.

Unitatearen helburu behinenak hurrengoak ziren: gertakariak eta haien testuingurua ezagutu eta bere memoria historikoa berreskuratu, ikasleari hurbila zaion gertaera lokal baten bidez dinamika orokorrean jabetzeko.

#### 2.3.4.- Argentinaren Kereila

Frankismoko biktimei, eta bide batez mintzagai diren gertakarienei, aukera berri bat agertu zitzaizkien Buenos Aireseko 1. Epategian 4591-10 Kereila ireki zenean 2001ean. Gainera, José Miguel Etxeberría, “Naparra”, nafarraren desagerpena preskribatzen ez duen delitu lez zehaztu zuen NBEk 2014an. 1980ko hamarkadako gertakari bat denez, 1977ko Amnistiaren Legea gainditzen duena, mugarri da garrantzitsua da aztergai diren gertakariarentzat eta beste askorentzat, urteari erreparatu gabe jokatzeke agindu baitzizkion justiziari (*Diario de Noticias*, 2017/04/04).

Honengatik guztiarengatik, Germánen senide eta poliziaren kargengatik zauritutako zenbait argentinaren kereilara jo zuten. Fermín Rodríguez Germánen anaiaren hitzetan “(...)gustatuko litzaidake gutxienez pertsona hauek ofizialki arduradunak izan zirela esatea eta historiak gogora ditzala gauzak izan ziren bezala” (*Argia*, 2014/07/09). Sabino Cuadra Amaiurreko diputatuak espainiar Kongresuan irekitako prozesu judizialaren inguruan egindako galderari “*La Justicia actuó rápidamente y hubo procedimientos que fueron archivados por sobreseimiento*” ihardetsi zion Alberto Ruiz Gallardón Justizia ministroak. Bera ere Buenos Airesen ibili zen “Sanfermines 78: gogoan!” herri ekimeneko kide, kereilan sartua zegoen partikular moduan eta parlamentari bezala babesa emanez (*Público*, 2013/04/09).

#### 2.3.5.- Aldaketaren gobernu

Testuan agerian geratu den legez eta Sabino Cuadra “Sanfermines 78: gogoan!” herri ekimeneko kideak lan honetarako elkarrizketa batean esan bezala, “(...)hamarkada hauetan zehar instituzioen aldetik oztopoak besterik ez” zituzten aurkitu. Harreman hau, ordea, 2015ean aldatu zen 37 urteren ostean, Nafarroako instituzioetan politikoetan ordura arte ezagutu gabeko gobernu aldaketarekin.

Horrela, 2015eko uztailaren 8ko omenaldia lehendabizikoz udalaren programa ofizialean txertatu zen eta Joseba Asiron Iruñeko alkatea eta hainbat zinegotzi bertaratu ziren. Hurrengo urtean, plaka bat jarri zen, ondorengo inskripzioa zuena: “*En memoria de Germán Rodríguez Saiz. Muerto por disparo de la policía el 8 de julio de*



1978/Germán Rodríguez Saizen oroimenez. Poliziak tiroz hil zuen. 1978ko uztailearen 8an. Iruñeko Udala” (*Naiz*, 2015/07/25 eta 2016/07/08). Irailaren 12ko gauean inskripzioa urratua eta Espainiako banderaren koloreekin margotua izan zen, hirian zehar udal gobernuaren eta alkatearen aurka egindako beste pintaketekin batera. Hurrengo egunean bertan kontzentrazio bat egin eta EH Bildu, Geroa Bai, Aranzadi eta I-Ek osaturiko udal gobernuak ekintzak errefusatu zituen (*Diario de Noticias*, 2016/09/13).

Hurrengo urratsa 2017ko otsailaren 18an Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak biolentzia polizialaren biktimen omenez egindako ekitaldia izan zen. Horrela, egondako isiltasun instituzionalari behin betiko amaiera eman zitzaion. Berrehun bat pertsona egon ziren, tartean alderdi politiko guztietako ordezkariak, UPN eta PP salbu.



Biolentzia polizialaren biktimen omenezko ekitaldian Fermín Rodríguez hitzartzea

Biktima guztien izenean mintzatu ziren Mikel Zabalza, José Miguel Etxeberría, “Naparra”, eta Germánen senideak (*Diario de Noticias*, 2017/03/17).

### 3. ONDORIOAK

1978ko Sanferminetako gertakariak Trantsizioak Nafarroan izandako une gorena izan zen. Nafar gizartean zauri odoltsuak utzitako estrategia errepresiboak, ordea, nahigabearen orban hori sendatzen saiatu zen memoria baten kimuak erein zituen. Gaurdaino iritsi den eraikuntza mugimendua da honakoa, aldatu dena eta etorkizunean ere berrituko dena.

Aitzitik, memoria bizi honek instituzioen aldetik ahanztura eta mespretxua baino ez ditu ezagutu denbora luzez. Azken urteen egoerak hobera egin du, Trantsizioaren ondotik ezarritako erregimenaren oinarriak gogor astindu eta ateratako gobernu berriek eskua luzatu diotelako mugimendu honi. Hala ere, aunitz geratzen da egiteke eta Sabino Cuadrak lan honetarako elkarrizketa batean adierazi legez, gauza zehatzen inguruan konpromisoak hartzen jarraitu behar dute orain instituzioetan dauden gobernu berriek.

Zenbait estamentuetatik, gertaera honen aurrean begiak itxi dira edo beste toki batera begiratu da, gertaturikoa ahantzi eta estaltzen saiatuz. Historialarien artean ere antzeko jokabidea suertatu da eta ondorioz, honen inguruan ezer gutxi argitaratu da, are gutxiago erakunde publiko edo haiekin lotura duten zentroen aldetik. Izan ere,

*“surge una relación privilegiada entre las “memorias fuertes” y la escritura de la Historia. Cuanto más fuerte es la memoria –en términos de reconocimiento público e institucional-, más el pasado de la que es vector deviene susceptible de ser explorado y elaborado como Historia”* (Traverso, 2007: 55).

Hain zuzen ere, honengatik da hain goraipagarria urte hauetan guztietan memori hau eraiki duten horien lana. Inolako babesik gabe eta bidean oztopoak aurkituz, bidean aurrera egin dutelako. Urratsak etengabea emanaz memoria hau dinamismoz beterik ekarri dute gaur egunera.

Edonola ere, jazotakoa horren presente eta lazgarri izatearen eragile dira sorrarazi zuten arrazoiek eta bere ondorioek. Hori dela eta, errotiko konponketa izan arte zauriek bere horretan iraunen dute. Zentzu honetan doaz ondorengo hitzak:

*“No se trata únicamente de restaurar la verdad sobre aquellos acontecimientos contra todo intento de su falsificación, aunque ello sea importante, sino de intentar algo más difícil todavía: establecer hilos de continuidad con las luchas de hoy en día. Se trata de mirar al pasado para ver mejor el presente. Las cuestiones que estaban vigentes en sanfermines del 78 siguen estando en el centro de la conflictividad contemporánea. No se puede volver la mirada al pasado sin tomar impulso en el presente. De hecho, sólo el presente puede abrir el pasado”* (Contreras, 2017: 25-27).

Honengatik, baieztatu daiteke ziurtasunez jai haietako memoria horren bizirik dagoela. Azken batean, hemen legoke memoria hau horrenbestez mantendu eta etengabea biziberritzearen funtsa.

Hala ere, ezin liteke ebatzi sortarazi zuten faktore horiek konponketa memoria hau desagertu edo lausotu beharko litzatekeenik. Bere funtzioa izaten jarraitu beharko luke bertatik belaunaldi berrientzako irakaspenak atera eta aurrera egiteko. Elkarrizketatutako Xabier Barberrek honen harira eginiko hausnarketa biziki aberasgarria da:

*“Guk ez dugu hau egiten museoan gordetzeko zerbait. Beti saiatzen gara lotzen pasatu zena dagoenarekin eta nahiko genukeenarekin ere bai. Lehengo borrokak, irabaziak eta batez ere galduak hor daude, hortik ikasi*

dugu, erabili nahi dugu istorio hori gaurko borroketan hau dena aldatzeko merezi duelako”.

Izan ere, berak esandakoari jarraiki memoria bizirik mantentzea guztiz beharrezkoa da “Ikasten delako. Zuk ezagutzen baduzu zer suertatu zen eta zergatik, errazago duzu holako egoera baten aurrean aurkezten bazara ba nola erantzun eta nola mugitu. Esperientziak ematen dizu, ez bakarrik zure esperientziak, esperientzia kolektiboak ematen du”.

Ederki borobiltzen zituen hitz hauek azkeneko esaldi batekin. Hein handi batean lan honetarako erabilitako bibliografia, ahozko iturri, hemeroteka eta beste motatako iturrien ikerketaren bidez eginiko jarduna ere borobiltzen dutenak: “Ikasi duzu ikasten”.

#### 4. ITURRIAK

Aoiz, Floren. *El jarrón roto. La transición en Navarra: una cuestión de estado*. Tafalla: Txalaparta argitaletxea, 2005.

Arbeloa, Víctor Manuel, “Lo que Navarra debe a la Transición” in José Luis Ramírez (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral. Una historia de la Transición en Navarra (1975-1983)*, Iruña: Nafarroako Gobernua, 1999, 411-487 orr.

Baby, Sophie, “Estado y violencia en la Transición española: las violencias policiales” in Sophie Baby, Oliver Compagnon eta Eduardo González (zuz.), *Violencia y transiciones políticas a finales del siglo XX: Europa del Sur y América Latina: de la comparación a la circulación de modelos*, Madril: Casa de Velázquez, 2009, 179-198 orr.

Caspistegui, Francisco Javier eta Garde, María Luisa. “¿Reforma o Ruptura?” in José Luis Ramírez (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral. Una historia de la Transición en Navarra (1975-1983)*, Iruña: Nafarroako Gobernua, 1999, 77-166 orr.

Castro, Demetrio, “La transición a la democracia en España” in José Luis Ramírez (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral. Una historia de la Transición en Navarra (1975-1983)*, Iruña: Nafarroako Gobernua, 1999, 21-76 orr.

Comisión Investigadora de las Peñas de Mozos de Pamplona (CIPMP). *San Fermín 78: así fue*. Iruña, 1978.

- Contreras, Ramón, “Los Sanfermines de 1978 y la Transición. Una lectura desde la militancia de izquierdas”, in David Beorlegi, David (zuz.), *Las otras protagonistas de la transición: izquierda radical y movilizaciones sociales*, Madril: Universidad Complutense de Madrid, 2017, 20-32 orr.
- Enériz, Francisco Javier. “La transición política en Navarra (1975-1979): La democratización de las instituciones forales y Navarra en la constitución de 1978”. *Revista jurídica de Navarra* 43 (2007), 53-92 orr.
- Esparza, Jose Mari. *Vasconavarros. Guía de su identidad, lengua y territorialidad*. Tafalla: Txalaparta argitaletxea, 2012.
- Iriarte, José Vicente. *Movimiento obrero en Navarra (1967-1977)*. Iruña: Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazte Departamentua, 1995.
- Iruñeko Peñen Federazioa (IPF). *Iruñeko Peñak, historia bizia*. Iruña: Iruñeko Peñen Federazioa, 2014.
- Iturbe, Francisco Javier, Meoqui, José Antonio eta González, Jesús. *Castigo a los culpables. Errudunei zigorra*. Equipo de información y solidaridad, 1978.
- Martinez, Jon, “Las Gestoras pro Amnistía durante la Transición”, in Angeles Barrio, Jorge de Hoyos eta Rebeca Saavedra (zuz.), *Nuevos horizontes del pasado. Culturas políticas, identidades y formas de representación: Actas del X Congreso de la Asociación de Historia Contemporánea*, Santander: Kantabriako Unibertsitatea, 2011.
- Molinero, Carme eta Ysàs, Pere. “Un proceso policéntrico. La transición de la dictadura a la democracia en España”. *Avances del Censor* 12 (2015), 189-207 orr.
- Sánchez Soler, Mariano. *La transición sangrienta: Una historia violenta del proceso democrático en España*. Madril: Península, 2010.
- Toral, Mikel (ed.). *La calle es nuestra. La transición en el País Vasco [1973-1982]*. Gasteiz, 2015.
- Traverso, Enzo. *El pasado. Instrucciones de uso. Historia, memoria, política*. Madrid: Marcial Pons, 2007.

#### Hemeroteka:

ABC, 1993ko maiatza (Web 2017ko maiatzaren 2a).

*Argia*, 2008ko ekaina, 2014ko uztaila (Web 2017ko martxoa).

*Berria*, 2011ko uztaila (Web 2017ko apirilaren 17a).

*Egunkaria*, 1998ko uztaila.

*El País*, 1977ko maiatza, 1978ko uztaila eta 2005eko iraila (Web 2017ko apirila).

*Diario de Navarra*, 1978-2016 arteko uztailak.

*Diario de Noticias*, 2015eko ekaina, 2016ko iraila eta 2017ko martxoa eta apirila (Web 2017ko apirila).

*La Vanguardia*, 2013ko uztaila (Web 2017ko apirilaren 26a).

*Naiz*, 2012ko uztaila, 2015eko uztaila eta 2016ko uztaila (Web 2017ko apirila).

*Público*, 2013ko apirila (Web 2017ko apirilaren 24a).

#### Ahozko iturriak:

Jose Mari Esparza, elkarrizketa, Iruñea, 2017ko apirilaren 9a.

*Oroitarría, piedra de toque* dokumentala

Rubén Marcilla, elkarrizketa, Iruñea, 2017ko otsailaren 24a.

Sabino Cuadra, elkarrizketa, Iruñea, 2017ko martxoaren 3a.

*Sanfermines 78* dokumentala

Xabier Barber, elkarrizketa, Iruñea 2017ko martxoaren 10a.

#### Argitaratu gabeko dokumentua:

Pérez, Nerea, *Unitate didaktikoa: Sanferminak 1978*, 2011.